

I. ERANSKINA

ALDAKETAK

1. ALDAKETA. Ila AZPIFASEAREN AURREKONTUA

Ila azpifaseari dagokion aurrekontua hurrengo obra-unitateetan aldatuta dago:

- Lurren mugimenduak: hondakinen hondeaketa- eta betelan-unitateei dagokienez, Ila azpifasean agertu behar duen bolumena ez dela berdina hauteman da. Nolanahi ere, IIc azpifasearen aurrekontuan sartuta dago, beraz, denboran desfasea gertatu da. Ildo horri eutsiz, unitateak ondorengo zenbatekoetan gehitu behar dira:
 - 1.5. partida: 382.623,13 €-n gehitu da (hondakinak hondeatzea).
 - 1.8. partida: 353.741,36 €-n gehitu da (hondakinen betelana gauzatzea).
- Gainazala drainatzea: gainazala drainatzeko tarte bat (B5/B6 tarte) zabaldu da. Tarte hori proiektuan ez zen kontuan hartu, drainatze horren gainean edukiontzien plataforma eraikitzeko proiektua baitzegoen. Aipatu plataforma ez denez eraikiko, ondoren B5/B6 drainatzea eraikitzeak zenbatekoa nola gehituko duen zehazten da:
 - 2.3. partida: 3.514,40 €-n gehituko da (harri-lubeta).
 - 3.20. partida: 4.362,50 €-n gehituko da (hormigoizko zolata).
 - 3.24. partida: 1.897,80 €-n gehituko da (kareharrizko legarra).
 - 7.3. partida: 783,75 €-n gehituko da (HDPE-ko geomintza).
 - 7.5. partida: 2.575,00 €-n gehituko da (HDPE-ko geomintzaren barberuak).

Neurketa horien guztien ondorioz, Ila azpifasearen aurrekontu materiala guztira 749.497,94 €-n gehituko da; hala, BEZrik gabe aurrekontu guztia 5.434.113,15 €-koa izango da eta BEZ barne 6.575.276,91 €-koa.

2. ALDAKETA: Ila AZPIFASERAKO DRAINATZE-GEOKONPOSATUAREN EZAUGARRI HIDRAULIKOAK DEFINITZEA.

Drainatze-geokonposaturako proiektuan jasotzen diren esfortzuek osagaririk desfavoragarrienak aipatzen dituzte. Horiek zaborte giko erdialde gehienari eragiten diote eta zona hori lizitazio honetatik at gelditzen da; hala, Ila azpifasean nahasitako areatan esfortzu horiekin bat ez datoz. Ildo horri eutsiz, Ila azpifasean jarduera-zoetarako drainatze-geokonposatuen kasuan esfortzu berriak definitu dira. Izan ere, ondoren zehazten dira:

$i (m/m)=0,13$

Transmitsibitatea $>0,70$ l/sm (R/F)

II. Eranskinean kalkulu hidraulikoa dago.

3. ALDAKETA: B6/B8 KANALAREN LUZERA, B5/B6 TARTEAN, LUZATZEA

Eranskin honen "1. aldaketa" izeneko atalaren paragrafo batean azaldu den bezala, B5/B6 kanalaren tartea proiektuan ez zen kontuan hartu, drainatzearen gainean edukiontzien plataforma eraikitzeke proiektua baitzegoen. Gaur egun aipatu plataforma ez da eraikiko, beraz, III. Eranskinean B5/B6 kanal-tartearen xehetasun planoak daude.

4. ALDAKETA: GAINAZALEKO DRAINATZE-OBRETAN HORMIGOI-MOTA

Gainazaleko drainatze-obretan erabili beharreko hormigoi-motari buruz desadostasuna dago. Bai I. Liburukiari dagokion txostenean (34. eta 40. orrialdeak), bai I. Liburukiaren orrian (75. eta 87. orrialdeak), baita I. Liburukiari dagozkion planoetan (100., 101., 102., 103. eta 132. zenbakiak) ere, erabili behar den hormigoi-motak HA-25/B/25/IIa izan behar duela esaten da; bien bitartean, aurrekontuari jarraiki, hormigoi-mota HA-30/25/IIIa izango da.

Gainazaleko drainatze-obretarako hormigoi-mota aurrekontuan azaldutakoa, hau da, HA-30/B/25/IIIa izango da eta hori da, hain zuzen ere, erabiliko dena.